

Foru Aldundiak softwarearen garapeneko bere jardunbide berritzaileak aurkeztuko ditu

Linean egingo den topaketa batean, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioarekin eta Kataluniako Generalitatearekin batera

Gasteiz, 2020ko ekainaren 29a.- Arabako Kalkulugunea SAK (AKGSA), aldundiari, Batzar Nagusiei eta toki erakundeei zerbitzu informatikoak emateko ardura duen foru sozietateak, *lineako* topaketa profesional batean parte hartuko du bihar, softwarearen garapenean dituen esperientzia eta jardunbide egokiak aurkezteko beste erakunde eta administrazio publiko batzuei.

Arabako Foru Aldundiak sozietate publiko horren bidez hartuko du parte topaketan, beste erakunde batzuekin batera, hala nola Espainiako Gobernuako Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioa, Kataluniako Generalitatea, Bartzelonako Aldundia, Bartzelonako Udala, Universitat Oberta de Catalunya eta Nafarroako Gobernua.

Sinposio horren antolatzaileek Arabako Kalkulugunea gonbidatu izana foru sozietateak azken urteotan egindako lana aitortzeko era bat da, hain zuzen erreferentzia bihurtu baita gainerako administrazio publikoentzat Agile izeneko metodo berritzailea oinarri duten proiektuak arrakastaz gauzatzearen arloan.

Proiektu horien bidez, garatzen dituen aplikazioen emaitza nabarmen hobetzea lortu du AKGSAk, bai eta zenbait teknologia txertatzea ere, besteak beste etengabeko integrazioa eta kode kalitatea.